

Euskal gizabideaz: Barandiaran, Arizmendiarieta, Azurmendi

Jon Mentxakatorre Odriozola

jmentxakatorre@mondragon.edu

Mondragon Unibertsitatea

Oier Imaz Alias

oimaza@mondragon.edu

Mondragon Unibertsitatea

Jasotze data: 2023ko irailaren 30ean

Onartze data: 2023ko urriaren 21ean

Laburpena

Lan honetan, euskal gizabidearen gaineko gogoeta egingo dugu, kate bereko hiru begi legez, elkarrekin lotzen diren hiru pentsalari eta kulturgileri helduz: Joxe Migel Barandiaran (1889-1991), Jose Maria Arizmendiarieta (1915-1976) eta Joxe Azurmendi (1941-). Begirada, lehenik eta behin, Barandiaranen pentsamendu eta ekarpenari egingo diogu, hura hasi baitzen, XX. mendearen lehen hamarkadetako giro konplexuan, euskal hizkuntza eta kultura komunitateko gizabidearen ardura mahai-gain eta pentsabidera ekartzen. Gainerako bi filosofoen hitzak, ondoren ekarriko ditugu, aberasgarri edo osagarri diren heinean. Hau da, Barandiaranen haritik eratutakoa zoliago josiko dugu Arizmendiarieta eta Azurmendiren ekarpenekin, eta, horrekin, haien arteko balio transmisio eta jarraipena erakutsiko dugu.

Gako-hitzak: Euskal kultura, Gizabidea, Herrigintza, Transzendentzia

Abstract

In this work, we will reflect on Basque humanism, focusing on three thinkers and cultural activists that participate in the same tradition: Joxe Migel Barandiaran (1889-1991), Jose Maria Arizmendiarieta (1915-1976) and Joxe Azurmendi (1941-). First of all, we will look at the thought and contribution of Barandiaran, who was the first that, on the complex context of the first decade of the 20th C., started to speak of the importance of the humanism based on the Basque language and culture. We will bring the words of the other two philosophers afterwards, as they enrich and complement Barandiaran's. In other words, we will enhance Barandiaran's contribution with those of Arizmendiarieta and Azurmendi, and, together with it, we will show the transmission of values and continuity among them.

Keywords: Basque Culture, Humanism, Nation-building, Transcendence

Janak eta edanak bearrezkoak ditugu, baiña gizabidea elburu

J.M. Barandiaran

Non dago zure eginbeharra gure Euskal Herriaren alde?

J.M. Arizmendiarieta

Lurrak berak irakasten dio [...] gizon-emakumeari non aurkitu goi-agerpena

J. Azurmendi

1. SARRERA

Euskal gizabidearen beharra, bilaketa eta argitasuna, Barandiaranen eskutik formulatu zitzaigunez lehenbizi XX. mendean, ataundarrak haren bizitzaren zentzua akademikoki zein pertsonalki, adinez oso nagusi zenean –bizitzaren narratiba ondo hausnartuta zeukanean–, azaltzeko egin zuen testuari helduko diogu hemen lehenik eta behin. Gizabidea, *humanismoa*, letren zainketa eta jarduna –humanitate edo giza zientziak–, eta Errenazimentuko kultura greko-latindarraren sustapena –goi-kultura eta pentsamenduzko herrigintza– albora utziz, azken galdera edo galdera absolutuen aurrean gizakiak, euskaldunak, hartu duen jarrera legeztatu hartuko dugu, Barandiarani jarraituz (1977a: 17).

2. GIZATASUN SUSTRAIAK

1981ean, Barandiaran eta Manuel Lekuonaren omenez egindako jardunaldian, lehenak honako izenburuko hitzaldia eman zuen: “Sobre las raíces humanísticas de mis estudios vascos” (1983: 31-40).¹ Testu mamitsu hartan, Barandiaranek bere bizitzaren zentzua adierazi zuen, XX. mendeko (bere) ibilbidea erakustearekin batera. Han esandakoari heldzea, hortaz, lagungarria izango zaigu bai Barandiaranen nortasuna ezagutzeko, bai gizabidearen izaera, iturri eta garrantzia ulertzeko.

2.1. Modernitatearen eragina

Gasteizko Seminarioan, XX. mendeko lehen hamarkadaren azken urteetan, Ataungo herrian bizi eta jaso, eta Gasteizko hirian ikusi eta ikasi zuenaren batuketaren ondo-

1 Testu horren antzekoa, laburragoa, zehaztasun gutxiagokoa baina izaeraz berbera, *Euskaldunak. Euskal etnia (IV)* liburuko euskal etnologiaren gaineko Ander Manterolaren orrialderen batzuk (Barandiaran/Manterola, 1988: 30-36) osatzen dute. Baita Barandiaranen 1980ko “¿Qué es ser vasco?” testutxoa ere (1983: 159-62).

ren, Barandiaran gaztea bere buruari galdera sakonak egiten hasi zitzaion, (euskal) kulturaz, (euskal) modernitateaz, (euskal) sen, eite eta balioez. Industria-aurreko eta industrializatutako, herri-jakintzaz blai eta ezagutza sekularreko, euskara jator eta euskara motzeko, Euskal Herriaren baitako aurkakotasunetan, erantzun egoki eta sendoak behar zituzten itaunak izan ziren eginikoak, hurrengo hitzek agerian uzten duten legez:

Lo que llamamos civilización y cultura se nos presentaba entonces como una construcción, cuyo entramado comprendía piezas de diversos signos: un conjunto de soluciones que el hombre daba a las exigencias de su vida formuladas en las preguntas ¿cómo me alimentaré?, ¿cómo me albergaré?, ¿cómo pondré a mi servicio las fuerzas del mundo?, ¿cómo me uniré con mis semejantes?, ¿cómo me entenderé o comunicaré con ellos?, ¿qué soy yo?, ¿cuál es mi destino? Las respuestas que diera nuestro pueblo a tales preguntas constituían nuestra cultura (1983: 31).

Gaur egun ere, euskal komunitatearen testuingurua berdina ez bada ere, galderak berberak dira, betierekoak baitira. Erantzunak, ordea, ezberdinak izan daitezke. Barandiaranek ondo ulertu zuen industria-aurreko herriak ihardespren multzo zentzudun, sakon eta partekatua garai luzez eman zuela, eta erantzuera hura, haren iturriarekin bat, modernitate bizkorren giroan galbidean zihoanez, ahalik eta zehatzen, ahalik eta osatuen, bildu eta ezagutzera eman behar zela. Izan ere, gizateria eta kosmosaren aurrean emaniko erantzun orekatuak beti izan daitezke, edozein garaitan, baliozkoak. Are gehiago herri jakinaren –Euskal Herriaren– kultura eta nortasunaren jarraipen eta transmisioa poliki eta jator egiteko bidea mehatxupean egonik.

Barandiaran eta haren gogo-indarra ezagutzearen ardura hor datza. Belaunaldiz belaunaldi herriak sortu eta erabilitakoak gizatasuna eta giza-komunitatea nola eratzen eta zuzentzen duen kontzientzia argia izatearen ardura zuen Barandiaranek. Itaun handi horiei aspaldiko tradizioz emandako erantzunek bizitzaren zentzua eta gizateriaren eginbeharra adierazten zuten, eta gizakiaren iturri eta jomuga mundu honetakoa ez dela esan. Hau da, tradiziozko gizabide edo humanismoa transzendentzian oinarritzen da, eta hura baztertu, ostendu edo ahaztu nahi duen garai sekularren baitan, Barandiaranek hainbat joera eta bide aurkitu zituen.

Nagusiena Auguste Comteren lerroko kritika positibista zen. Tradiziozko humanismoa eratzen zuen metafisika eskolastikoari transzendentzia osagai alienatzailea zela leporatzen zion, eta benetako humanismoa beste bideren batetik lortu beharra zegoela eraso; zientzia positiboek irekitakotik, hain zuzen. Positibismoaren arabera, aurrerabidea, aurrerapena, *progresoa*, humanismo berriaren oinarri eta jomuga izan behar zen. Horrekin bat, munduaren ikuspegi mekanikoa zein dinamikoa zetozen. Transzendentziarik gabe eta lege aldaezinen arabeko munduan, hortaz, ez zegoen norabiderik,

zentzurik. Ezta horren beharrik ere. Mundua gizakiaren garapenaren arabera erabiltzea besterik ez zegoen.

Mundu horren ezagutza gero eta handiagoa zuten zientzia positiboek, ordea, gizakiaren irrazionaltasuna edota atomo azpiko eremua aurkitu zituzten, eta bai gizakia, bai munduaren gaineko galderen erantzun borobilak emateko aukera zailagoa egin. Ilustrazio gorena ekarri beharrean, konplexutasun edo kaosa handitu egin zituzten. Era berean, teknikaren ekarpen handiak gizakiari erraztasun handiak ekarri zizkion. Baina gizakiaren muina, zentzua eta transzendentziaren eremuari irekirik dagoen heinean, eta arlo horiek garatzeari uko egin zitzaion neurrian, kezka handiak sortu ziren. Barandiaranen hitzetan:

Parecía, sin embargo, que los hechos no confirmaban tal predicción. Los avances, evidentemente espléndidos, de las ciencias aplicadas paliaban en cierto modo un lado inquietante. Solo un lado y no el más importante (1983: 34).

Hau da, Barandiaranek bere buruari egin zizkion galderetan, lehenak –nola elikatuko naiz? Nola babestuko naiz? Munduaren indarrak neure nahietara nola ekarriko ditut?– erantzuteko balio zuen joera positibistak, baina giza-galderei erantzuteko ez –nola elkartuko naiz hurkoekin? Nola ulertuko dugu elkar eta harremana izan? Nor naiz ni? Zein da nire goi-helmuga?–. Horregatik, aurrerabidearen gaineko Barandiaranen kritika are zorrotzagoa da:

El progreso, como sistema de medios materiales que facilitaba su andadura al hombre y que iba enriqueciéndose incesantemente, tenía solamente sentido económico. Era una realidad material e instrumental en la vida humana, y la técnica uno de sus elementos integrantes. Veámos, pues, que esa realidad, desde luego prodigiosa, elaborada por el hombre para su defensa material, llevaba en sí un fermento de crisis o un poder de signo contrario a la realización del hombre como tal (1983: 34).

XX. mendearen hasieran, Barandiaranek ondo ulertu zuen zientzia eta teknika ez direla gizakiaren benetako arazoei erantzutera heltzen –Argien Aroan filosofo platoniko eta erromantikoek jadanik salatu zuten legez–. Barandiaranen begietan, hortaz, *progreso*a, kultura instrumental legez, ez zen desegokia, gorengo ideal legez baizik. Azken horretarako ez zitzaion balio, ondorio eta kritika askoren argitan. Aurrerapenean oinarritutako bide berriak antzinako humanismoari hainbat geruza ustel kentzeko balio izan zion, baina haren muinaren ordainik eratzeko ez. Beste bideren batetik jo beharra zegoen, Barandiaranen iritziz.

2.2. Tradizioaren beharra

Erantzun asegarrietara heltzeko, Barandiaranek tradizioaren bidetik jo zuen. Lehen iturria etxea, auzoa eta Eliza izan ziren, eta erantzuna honako formulaz adierazita aurkitu zuen: “Ez gara gure baitakoak, besteren baitakoak baizik”. Hau da, euskalduna, bere horretan, bere buruari oinarri nahikorik emateko gai ez denaren, eta oinarri horren iturria transzendentzia denaren ezagutza eta aitortpena. Esaldi horretan, sakratuaren adierazpena dago. Bigarren iturria goi mailako ikasketak, jende landua eta liburuak izan ziren. Wundt, Graebner, Breuil, Schmidt eta Aranzadi ezinbestekotzat jo zituen Barandiaranek iturri biak elkartu eta giza-galderen erantzuna euskal kultura eta komunitatean bila eta aurki zitzan.

XX. mendeko bigarren hamarkadaren lehen urteetan, Barandiaranek bazekien bere ekimenaren bidea zein izango zen: gizabidea euskal sustraietatik ezagutzea. Bide hori Euskal Herria eta gizateria osoarentzat jorratu eta argitzeko lana onartu zuen, bere baitan eta besteren baitan. Ekimen erraldoi horren baliabide izan ziren, besteak beste, *Eusko-Folklore*, *Gymnasium*, *Idearium*, *Ikuska* eta *Eusko-Jakintza* aldizkariak proiektuak, jendea herriari eta garaiaren berrikuntzen eraginari begira jartzen zituztenak. Euskal gizabidea ikertu eta ezagutzera emateko ahaleginak izan ziren, eta proiektu horien eten edo amaierak ez zioten Barandiarani gogoia itzaltzen. Hurrengo hitzak ezinbestekoak dira bere asmoaren iturri sakonera hurbiltzeko:

Nos interesaba sondear en los medios populares en busca sobre todo del humanismo; pero sin desatender a la cultura instrumental con la que aquel se halla articulado. En el trasfondo de cuanto aprendíamos, vislumbrábamos, como podíamos hacerlo también en el de otras etnias, una concepción generalmente aceptada, según la cual la vida humana se realiza en dos niveles: el inferior, que corresponde a su parte material –cósmica, vegetal y animal–, y el superior que es personal y característicamente humano. Niveles o elementos jerarquizados, de suerte que los más genéricos –los mecánicos y los orgánicos– se subordinen a lo racional y personal. Invertir este orden equivale a materializar o cosificar al hombre. El humanismo o la cultura fundamental, que comprende, como ya indicamos antes, las soluciones dadas a los problemas formulados en las preguntas ¿qué soy yo? y ¿cuál es mi destino?, nos interesaba ante todo (1983 : 38-39).

Barandiaranen lana, zientifiko eta herrigilea, proiektu humanista izan zen. Etnografia, arkeologia, antropologia... euskal gizabidea ulertzeko bitartekariak eta aldeak baino ez ziren, humanismoa *oinarrizko kultura* baita.² Barandiaranen beste hitz hauetan:

2 Egiaren bidean, Barandiaranek pentsamendu zientifiko diskurtsibo-analitikoa eta pentsamendu erlijioso-misterikoaren sintesia bilatu zuen. Gaspar Martinezen hitzetan, Barandiaranen batzuk ere jasoz: “Jose Miguel Barandiaran sinestun sakona izan zen, eta bere apaiz izaeratik bizitzari eta historiari kulturak, Euskal Herrikoak, ematen zion zentzuaren erantzuna ezagutzeko gogoeta lan

El material que el arqueólogo pone al descubierto no es la realidad auténtica de un comportamiento o de una vivencia; es tan solo un signo o un símbolo que nos remite a algo que está ausente, a una subjetividad diferente de la del observador (1977a: 19).

Hau da, zientziaren ekarpen objektiboak, ikergaia herri jakina denean, harekin sako-neko partizipazio intersubjektiboan aritzera bidea zabaldu egin behar du. Euskal ondareari adituz gero, ha eta besteren bidez, ha eta beste eginez, zer giza-bizipen zegoen ulertzeraz jo beharko litzateke, ha edo beste horren deskripzio erabatekoa helburu izan beharrean. Zergatik? Giza-bizipen horretan daudelako giza-gogoaren lorpen eta gale-rak, negar eta irribarreak. Hitz batez: handitasunerako aukera txikitasunean.

Izan ere, norbanakoaren ahultasuna aitortzearen apaltasunean, bestea eta Bestea be-har izatean, aldamenekoa hurko eta senide bihurtzeko beharrean, bizitzaren zentzua, norabidea, aurkitzen da: norberarengandik b/Bestearengana, b/Bestearengandik norberarengana. Nor bere buruari eman beharrean, lehentasuna norbera besteri ematea den eremu intersubjektibo horren gainean, Barandiaranek honakoa gehitu zuen:

La vida tiene un *para qué*. Es, por lo tanto, un trascender de sí, un llegar a alguien, que es Dios, para ganarse a sí mismo, lo cual no es alienarse, ni deshumanizarse, sino aceptar libremente una proposición: cumplir un destino.

Este esquema parece inspirado en el Cristianismo. Es posible que tenga raíces más antiguas; pero es indudable que el Evangelio ha influido hondamente en nuestro pueblo; y sus enseñanzas sobre el amor de Dios y del prójimo, y la figura de Cristo como modelo concreto a quien imitar, han ocupado ampliamente el campo de visión de los vascos. Estos elementos han constituido la estructura más seria de su comportamiento, a la que todos recurrían en última instancia, si bien el hombre, solicitado por múltiples factores, anduviera muchas veces por diversos derroteros en la práctica de la vida (1983: 39).

“Ez gara gure baitakoak” muineko euskal adierazpenean, hortaz, gizakiak transzendentziara berez duen irekidura euskal artikulazioz agertzen da. Irekidura hori kristautasunak aberastu edo zuzendu egin duen zalantzarik ez dago, beste herri eta kultura zen-

sakona egin zuen. Bere hausnarketaren bidez oso lan zientifiko garrantzitsua burutu zuen. Haren ustez, gainera, hori ez zegoen kontraesanean fedearekin, fedea berak aldarrikatutako Egiara iristeko bide ezberdin eta osagarria baitzen: “Zientziaren bidez aurkitutako Egia erlijioak irrikatzen duen berbera da. Erlijioaren bidez aitortzen den Egia, Zientziak giza baliabideen bitartez ikertzen duena da; biek sustrai berberak dituzte eta biek osatzen dute giza-jakintza” (Gaspar Martínez, in Barandiaran Fundazioa, 2017: 72). Sintesiaren gainean, *ikus* “Ataunen bizi da San Frantziskoren anima duen jakintsu bat” (Luis Barandiaran, 1980: 235-44).

baitek egin bezala –Europa ipar zein hegoaldekoak, Ekialde hurbilekoak–, baina euskal era eta jarrera berezia erakusten du, Barandiaranen iritziz.³ Horren gainean eratutako gizabidea, XX. mendearen erdira arte kristau kutsu handikoa izan den heinean, kaltetu egin zen, besteak beste, atxikimendu kristauaren politizazioagatik, mundu moderno teknozientifikoaren eraginaz gain. Baina beste ezerk ere ardura handia zeukan:

La época se ha empeñado en desinteriorizar al individuo, multiplicando sus contactos con lo superficial de las cosas, de suerte que no le deja tiempo para repensar, para hallarse a solas y valorar o someter a juicio las mil especies que irrumpen en su mente.

Estamos, pues, ante un caso de deshumanización de multitudes hombres de todas las clases sociales [...] Asistimos sin duda a una crisis de la cultura en su aspecto fundamental [...] Deberíamos acudir a las raíces y presentar el humanismo tradicional vasco, elevado a nuevo rango por el Cristianismo que recibíramos mediante la Iglesia, para que cada uno pueda aceptarlo como esquema razonable que le señale el plan de su vida. Incluso también, si ello hiciera falta, para confrontarlo con otros modos de pensar, como el hedonismo, el marxismo, el agnosticismo y otras teorías o religiones que nos vienen franqueando los horizontes de nuestra tierra y nuestra etnia (1983: 40).⁴

Gizatasunaren galera adierazteko Barandiaranek erabili ez zuen hitza *nihilismo* da, zentzu ororen apurketa, eta, ondorioz, gutxieneko oinarrien erauzpena. Sustrairik gabe, kultura azalekoa, arina, helmen txikikoa eta kontsumokoa bilakatzen da. Hortaz, Barandiaranentzat ezinbestekoa da euskal gizabiderako heldulekuak ondo ezagutu eta aurkeztea,⁵ eta kristaubidearekin nola lotu eta edertu daitezkeen aztertzea. Nor-

3 Aizpuru/Aizpuruak Barandiaranen hitz hauek jaso zituzten: “Gure herrian gertaera, sinesmen eta ohiturak indoeuropar eta beste kultura batzuetan ere agertzen baitira, hara nola, Eskandinavia, Italia, Errusia, Alemania edo Ameriketako Missourin. Erabat bitxi edo berezi den zerbait edozein etniantan aurkitzea ia ezinezkoa da; horregatik, kultura batek elementu kultural berri bat sortzea baino meritu handiagoa du, elementu orokor horiei etnia jakin batek, euskaldun herriak gure kasuan, eman dion eta eman liezaiokeen kutsu bereziak” (2009: 18). *Ikus* Barandiaran (1974: 16-19; 1977a: 23).

4 Beste testu honetan zehatzago esan zuen: “Este humanismo de raíces autóctonas ha venido durante siglos refrendado, fortalecido y aun enriquecido por el cristianismo, que vino anunciando a Cristo como modelo concreto a quien imitar en el amor a Dios y al prójimo, fundamento de la convivencia humana y base de justicia y de los valores que forman o deben formar el entramado de la vida social. Pero también medio para que cada uno llegue a ser fiel a su programa de vida y para cumplir su destino y lograr su felicidad eterna” (1983: 160).

5 Ardura handikoa da aditzea, gizabidea, kultura eta herrigintza lege, euskaraz egin behar dela, hizkuntza herriaren iturri eta batasun espiritualerako oinarri nagusia baita (*ikus* Barandiaran,

berak eta komunitateak erabaki behar dute kristautasuna bizitzarako argitatz hartu ala ez, baina euskal gizabidean izandako ekarpena ulertu ondoren, eta beste ikuspegiren batzuekin elkarritzeta eta eztabaida maila sendoan jarri ostean.

3. GIZATASUN EGARRIA

Barandiaranek argi zeukan poliki-poliki belaunaldiz belaunaldi eratorritako herria –kultura, biziera eta gizabidez–, kolokan hasi eta gero eta herrenago ibili zela XX. mendean barrena. Eremu praktikoa, azaleko mailatan, euskal kultura eta komunitatea (hiper)modernitatera Mendebaldeko beste edozein herri lege egokitu da azken hamarkadetan. Baina XX. mendearen hasieratik Barandiaranek ikusitako zulo eta galera areagotu egin dira. Muineko geruzatan, motel eta tentu handiz ematekoa dena ez da ondo zabaldu eta erne. Azurmendiren hitzetan:

Gu gaude alde guztietatik puskatuta. Ez da bakarrik erlijioaren aldetik. Horrekin batera puskatu da gure balio sistema guzti-guztia. Beharbada, bizitzaren eta adiskidetasunaren balioa indartu egin da, klandestinitatean-eta dabilen jendeak, hain zuzen, horrelako balioak behar dituelako. Beraz, solidaritateak, adiskidetasunak eta beste balio batzuk, beharbada, irabazi egin dute. Beste batzuk, seguru, galdu egin dute: ordena, diziplina, lanerako entrega... [...] Mundu bat da puskatu dena, eta horren berreskuratzearen bilaketaren estudioak dira hauek denak. Nire ustean behintzat (Azurmendi, 2013).

Hau da, XX. mendearen hasieran Barandiaranek zeukan kontzientzia berbera Azurmendik XXI. mendearen hasieran dauka. Zerbaiten hutsa nabari du pentsalariak, eta, horren aurrean, euskal pentsamendua argitu eta aberasteko liburutegia osatzeko lana egin du, Barandiaranek bezala. Ataundarrak Euskal Herriaren ezaugarriak bildu eta antolatuz, liburutegi zientifikoa ekarri zuen; zegamarrak, Euskal Herriaren gogoeta intelektuala argituz, liburutegi filosofikoa eman digu. Zergatik? Euskal kultura eta komunitatearen osabiderako euskal barne mundua sendo izatea, eta horretarako iturriak ezagutzea, ezinbestekoa delako. Edo, beste era batera esanda, gizabidearen emaria eza-gutu gabe, herriak lokatzezeko oinak izango dituelako. Azurmendiren hitzetan:

Puskatuta egotea da gure problema handiena [...] Une honetan ezinbestekoa da euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu espiritual bat sortzea:

1977b; 1983: 90-101). Barandiaranentzat, beraz, hizkuntza eta kultura banaezinak dira; hizkuntza kulturaren alde gorena da (Barandiaran Fundazioa, 2017: 30). Horren haritik, Arizmendiarieta: “Cambiar de lengua es cambiar de alma” (1933: 37; 2008: 43).

geure kontuekin, geure mitoekin, geure pentsamenduaren azterketarekin, filosofia-geure mitoekin... Geure eta geurea eskusiboa den barne mundu bat sortu. Nik uste dut oso inportantea dela. Eta hori ez diogu inori ematen. Ez ezkutatu nahi dugulako, baizik eta hori sendo barruan eduki arte ez dugulako geure burua osatuta izango. Barrutik puskatuta gaudenok, hori eduki behar dugu. Eta hori eginda daukagunean, erabakiko da zer itzuli eta zer ez (Azurmendi, 2013).⁶

Azurmendik adierazten duen apurketa, eta haren osaketaren behar gorria ondoko adierazpen pertsonalean aditzera ematen zaizkigu:

Nire kasua behintzat hori izan da, ez dut beste mundu berri bat sortu edo eraiki ahal izan. Ni umea nintzenean, gure amak seguru asko sinesten zituen Mariren ipuinak eta guzti hori. Geroago, bera ere ilustratu zuen norbaitek, eta nik galdetzen nionean amak erantzuten zidan: “Horiek tontokeriak dituk motel!”. Ez zituen kontatu nahi izaten. Eta nik esaten nion: “Ama, hori tontokeria bat da, baina Espiritu Santuarena baino gehiago ez, e!”.

Gure amari puskatu egin zioten mundu bat, eta ezin izan zuen berreraiki. Denbora izan balu eta inork lagundu izan balio, konturatuko zen, “a! Marirena erabat justifikatuta dago”. Puskatu eta gero errekupeatu liteke mito bat. Lehengo mitoa da, baina beste balio bat dauka orain (Azurmendi, 2013).⁷

Narrazio sinbolikoak, zentzuaren iturri diren kontakizunak, transzendentziarekiko harremanak ... bizitzen lagundu egiten dute, gizakia bere burua oinarritu eta asetzeko lain ez baldin bada, eginbide, ekimen eta balioen iturria gizakia bera baino handiagoa den dimentsiokoak izan behar direlako. Mina, sakrifizioa, egia, poza, laguntasuna ... ongarri dezaketen iturriak galdu egin zaizkigu hein handian, Azurmendiren iritziz. Barandiaranen lan harrigarria izan arren. Horregatik, zegamarrak argi dio: “Gure egin-kizuna hori da, eta nik uste dut hor gaudela: mundu puskatu bat nola berregin eta nola errekupeatu, berriro esklabo bihurtu gabe” (2013).

6 Azurmendik, Barandiaranek ez bezala, liburutegia euskaraz eman digu. Testuinguru eta garai ezberdinetan lan egin zuten, baina ondo gogoan hartzekoa da, Barandiaranen jarduna Azurmendirena prestatu eta eragiteko egin baitzen, eta, azkenak oraindik erdaraz jarraituz gero, alferrikakoak liratekelako lan biak.

7 Azurmendiren hitzetan ere: “Zeri deritzo, ordea, sinestea? Gure mendiak, errekek, kobazuloak, ‘ipuinak’ beteak daude: Aketegiko Dama, Tartalo Harri, Olarango erreka laminak, Olaberriko Gurutze Santua, oraindik ene haurtzaroa bete duten sinesteak izan dira; ordurako gure familietan guztiz ‘sinesten’ ez baziren, gutxienez ez ziren guztiz ‘ez sinesten’. Gero ere nik neuk behintzat haurtzaroko ipuinekin jantzita ikusten jarraitu dut beti Aizkorri, Olaran, Arriurdin, Sandrati, haurtzaroko paisaiak” (2009: 66). *Ikus* Mentxakatorre (2020; 2021).

4. PERTSONA ETA KOMUNITATEA

Zentzu eta balioen mundu sendoa ezagutu eta transmititzearen beharraz aritu zaizkigu bai Barandiaran, bai Azurmendi. Are gehiago mundu hori eraitsi egin digutenean, edota eraispenean lagundu dugunean, zergati ugari tartean direla. Mundu apurtua, puskatua, berreraiki beharrean jarri gaitu Azurmendik, gainera.⁸ Euskal kultura eta komunitatean horren premia larria dugulakoan dago zegamarra, baina ohar garrantzitsua ere egin du: “berriro esklabo bihurtu gabe”. Hau da, zentzu eta balio iturriak ondo ezagutu behar ditugu, norbanako eta komunitate mailan, zentzu eta balio sistema lehortu, fosilizatu, eta itogarri bihur ez dakigun.

Nondik jo? Nondik eragin? Zaila izan liteke asmatzea, begia kanpoko geruzetan jarritz gero. Baina muineko eremuan arreta jartzeko aldarria egin dute pentsalariak; hots, gizabidean. Horregatik, XX. mendearen bigarren erdian arrakastatsua izan den herrigintza proiektu jakina gogoratzea garrantzitsua izan dakikegu: kooperatibagintza. Izan ere, mugimendu horren pizgarri eta eragile nagusi izan zen Jose Maria Arizmendiarieta pentsalari eta eragilea adibide aparta da, eta Barandiaran eta Azurmendiren arteko katebegia eratzen du: Gasteizko Seminarioan Barandiaranen eraginaren hartzaile, eta Azurmendiren tesi laneko ikergai –*El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta* (1992)–.

Arizmendiarietak, ezaguna den legez, gizarte berrikuntza sustatu zuen kooperatibagintzaren bidez, herrigintza piztu zuen gizarte zabal eta indibidualista auzo eta lan komunitate bilakatzen irakatsiz. Baina, horretarako, lehenik eta behin, norbanakoak pertsona izaten ikasi behar duela irakatsi zuen. Hots, edozein eraikuntzarako oinarri-oinarrizko gaia gizabidea dela. Arizmendiarietaren hitzetan, Azurmendiren kezka nolabait erantzunez: “Sinistu egin behar dugu benetako aberastasuna gure nortasunaren garapen integralean dagoela. Hori lortzen ez dugun bitartean, ondasun materialak modu zuzenean banatzea lortuta badugu ere, esklabo izaten jarraituko dugu” (2013: 34).

Horregatik, Arizmendiarietaren idazlanen Azurmendiren antolaketatik, “Hacia un nuevo humanismo” atala (1992: 369-85) ezinbestekoa zaigu. Arizmendiarietak atal horretan esandakoak Azurmendik “El pensamiento de Arizmendiarieta en su contexto” (2014) lanean argiago eta zehatzago adierazi zituen, Arizmendiarietaren *Goetak* (2013) editatu eta urtebetera,⁹ eta, gure ustez, Azurmendiren ahotsa bera ere

8 Barandiaran biltzailatzat aurkeztu dugu, baina Barandiaranen lana benetako poesiatzat, herriarentzat benetako sormen lantzat, adierazi zuen Caro Barojak “Barandiaran y la conciencia colectiva del Pueblo Vasco” lanean (in Academia Errante, 1963: 11-26).

9 2016ko bertsioa akademikoagoa da erreferentzia eta zehaztasunez, baina 2014ko testua irakurlearentzat zuzen eta egokiagoa.

bere lanetako beste inon baino hobe ikus daiteke bertan –*Azken egunak Gandiagarekin* (2009) lanarekin bat–.¹⁰

4.1. Euskal ondarea eta pertsonalismoa

Arizmendiarietaren hautua izan zen, Barandiaran eta Azurmendirena legez, krisi garaian, “hacer una pausa y volver la mirada a las fuentes: al espíritu de los orígenes” (Azurmendi, 2014: 2). Horretan, kristau filosofiak XX. mendeak eratutako pertsonalismoa edan zuen Arizmendiarietak, eta norbanakoa pertsona izatera deitua dagoela aintzat hartu. Pertsonak izaera komunitarioa dauka: norbera gai da bere buruarekin hitz egiteko –euskaraz jator esaten dugun legez, *neure artean hitz egiteko*–, ondoren hurkoarekin –gizaki zein izaki– eta horrekin bat norbere gainetik dagoenarekin –misterioarekin– (*ikus* Arizmendiarieta, 1933: 17-18; 2008: 38). Pertsona, hortaz, talde txikitik handira, talde handitik txikira, zentzuaren eremuan ari dena da, ekintza eta erabakien jabe eta erantzule, subjektu etiko eta estetiko. Azurmendik honela dio:

Lo que constituye a la persona es el misterio de su intimidad única: la conciencia, entendida en toda su riqueza. No sólo la conciencia moral, sino también la conciencia estética, la conciencia mítica o religiosa, la conciencia de la verdad, origen de la ciencia; o sea, todo lo que es más específicamente humano, lo que nos distingue como humanos. Que incluye la conciencia social, la conciencia de la comunidad (2014: 5).¹¹

Eta nola bilaka daiteke inor pertsona? Nondik hasi? Lehenik eta behin, aldamenekoa subjektutzat hartuz. Objektutzat hartzeari utzi eta subjektutzat onartuz, urrun mantendutakoa hurbilera ekar daiteke, lagun edo adiskide egin, eta tarteko harreman eta eremu intersubjektiboa elkarrekin eraikitza zuzendu. Eta horrek, berez, komunitatearen

10 Adibidez, Arizmendiarietaren filosofiaz aritzean, Azurmendik era honetako baieztapenak egiten ditu: “En esta debacle de los valores humanos, el personalismo no pretende inventar una moral completamente nueva, sino poner fundamentos nuevos en medio de las ruinas de los valores tradicionales, sin romper con la historia y la tradición. La experiencia del siglo XX nos permite no tener ya demasiadas esperanzas en aquellas fantásticas morales completamente nuevas. La historia no se supera negándola” (2014: 9). Ildo horretatik, *ikus* Azurmendiren *Filosofía personalista y cooperación* (1984).

11 “Arizmendiarietaren pentsamendua eta egitasmoa, beraz, pertsonarengan fedea izateko gonbita dira. Horretarako, baina, pertsonak bere burua aurkituko badu, helburuko galderei lotu behar zaie (“gizabidea helburu” duten galderak eta praxiak, alegia). Hori dela eta, Arizmendiarietak argi zuen lantegiko kideetako bakoitzean kondizio subjektiboa birsortzea eta jokabide etikoa premiazoak zirela; bestela esanda, arlo tekniko eta profesionalean onak eta zailduak ez ezik barne-bizitza aberats, sinestun eta sakoneko pertsonak behar zirela (hezkuntzaren eta formazio kooperatiboaren gaineko ikusmolde zabala zuen, hain zuzen ere)” (Eizagirre, 2020: 6).

eraketa dakar. Hau da, inor pertsona izatera heltzeko, komunitatearen printzipiotik hasi beharra dauka: ondokoa subjektutzat, bere zergatien ugazabatzat, hartuz. “En resumen: nos hacemos personas creando un orden nuevo – de personas a personas” (Azurmendi, 2014: 6). Pertsona eta komunitate ardatz horretan josi zen Arizmendiarietaren herrigintza; hots, ordena berria pertsona elkartuen autoeraketan.

Pertsona izatea, hortaz, kontzientzia eta nortasuna ondo lantzetik eratortzen da. Balioetan ez, balioen iturrian sustraitu beharra dauka pertsonaren gogo eta barnetasunak. Azurmendiren hitzetan:

La conciencia no es un instinto, tiene que ser desarrollada. Y se desarrolla por la educación. Ahora bien, la formación de la conciencia, por tanto de la persona, variará completamente según se guíe por unos valores o por otros: por el bien de la comunidad, la solidaridad, o por el bien individual propio, el interés egoísta. Eso es bastante claro. Pero aquí surge otra vez una pregunta, aunque generalmente preferimos no hacerla. El mundo, la naturaleza –los pájaros, los lobos– no tienen valores. Por tanto, ¿de dónde vienen estos valores que encontramos en la historia humana? ¿Quién los ha puesto ahí? Hay muchos intentos de explicación, y todos ellos se pueden clasificar en dos tendencias: una es que los valores los pone e impone la fuerza, el poder; y la otra es que los valores los crea cooperativamente la comunidad (2014: 7).

Pertsona izateko gaitasuna, hortaz, gizakiarengan dago, baina landu egin behar du, gizabidez. “Gizakia gizaki jaio baino hezkuntzaren bidez egiten da gizaki” dio Arizmendiarietak (2013: 172). Edota: “Kultura gizakiari zintzotasuna eta jatortasuna ematen dion odola da” (2013: 181). Zorionez, gizakia talde izaki da, eta taldean aritzeko kementetik eratzen dira balioak, taldea bera baino harago dagoen nahi eta indar garbiren batetik.¹²

Nacemos en una comunidad, en comunidad alcanzamos la madurez como personas, etc. Nos hace la comunidad, nosotros hacemos la comunidad. Persona y sociedad se hacen mutuamente en proceso circular. Y ahora, atención: esta voluntad de cooperar en la construcción de la una comunidad es el origen de los valores [...] partiendo de los valores más elementales: no hagas lo que no quieres que otros te hagan a ti; haz a otros lo que quisieras que ellos te hagan a ti; no seas

12 “La paz y la unidad sólo serán posibles cuando la humanidad encuentre un alto ideal, punto de convergencia que se señale a las voluntades. Pero este punto debe estar él mismo fuera de las fronteras de este mundo visible, no puede ser el hombre mismo, ya que de lo contrario este se constituye, llevado del egoísmo, a sí mismo en fin, tratando de subyugar a sus semejantes” (Arizmendiarieta, in Azurmendi, 1992: 62).

arrogante, sino humilde, con los compañeros, etc. Valores que deseamos que rijan la convivencia, que decidan las relaciones de trabajo, la educación, la política, toda la vida comunitaria (2014: 9).

Gizakia, beraz, aurretik (izan) direnei zor zaie. Aldez aurretiko taldeari zor zaio. Onarpen horretan ere ageri da Barandiaranek nabarmendu zuen aitortpena: “Ez gara gure baitakoak” (*ikus* Arizmendiarieta, 1943). Eta, ondorioz, Arizmendiarietaren gogo, irakaspen eta lorpena izan zen, pertsonalismoaren bidez, euskal ondarezko gizabideari toki egitea. Ez zuen irizpide edo argibide berririk asmatu, “no pretende inventar una moral completamente nueva, sino poner fundamentos nuevos en medio de las ruinas de los valores tradicionales, sin romper con la historia y la tradición” (Azurmendi, 2014: 9). Hau da, tradizioz sendoa zen harri zaharraren gainean horma berriak eraikitzeko argitasuna zeukan: pertsona irmoak, ohore eta duintasun handikoak, eratzeko gizabideetik edanez. Arizmendiarietaren hitzetan: “Gizakiaren ahalmenetan gehiago sinesteko eta horiekiko itxaropen handiagoa izateko gai dena, bera izango da humanitateari aurrera bultzatzen jarraitzeko gaitasuna izango duena” (2013: 19).¹³

Labur esanik, gizabidea eta transzendentziaren aitortpenaren printzipioetara itzuli ezik, giza arazoibide eta ekimenak ahulak eta gaixoak bilakatzen dira lehenago edo geroago, Arizmendiarietaren –eta Barandiaranen eta Azurmendiren– iritziz, gizakiarentzako baliozko zentzu-iturria gizakiarengandik harago egon beharra daukalako.¹⁴ Gizakiarengan sinesmen hutsa hauts bihurtzen da, eta hautsei arnasa ematen dion Harengandik ikasi beharra dauka.

5. ONDORIOAK: INDAR ITURRIA EZAGUTZEAREN BEHARRA

Barandiaranek eta Arizmendiarietak, jakina zaigunez, bizitza osoan ez zuten egun bat baino gehiagoko oporraldirik hartu. Atsedena hartzen zuten, noski, baina haien ekimena beti besteren bati, beste inor edo ezeri, eskaini zioten. Haien lehentasunen zerrendan ez zen euren burua agertzen. Adore horren bultzada zein ote zen ulertu nahi izatekotan, gizabidea beraren iturriaz galde egin beharko genuke. Hau da, pentsalariok gizatasuna hobetzeko balioez hitz egiten zuten, baina horiek ezin dira euren horretan

13 “Dударик gabe, ikuspuntu filosofiko pertsonalista egiazko praktika sozial bilakatu izana da Arizmendiarietaren ekarri nagusia. Pertsona batean, klase batean, estatu-aparatu batean ez, baizik eta bere buruaren jabe diren pertsonen erantzukizunean oinarritu da Arizmendiarietaren herri-gogo” (Eizagirre, 2020: 6). Horretarako ezinbesteko duintasuna, kosmosean bere tokia izateagatik datorkio gizakiari, bertan, talde izaeraz, ondo egokituta egoteagatik (Arizmendiarieta, d.g.a).

14 *Ikus* Barandiaranen “Testamentua” (in Aizpurua/Aizpurua, 2009: 28).

irakatsi, transmititu, balio horien iturria ezagutu gabe. Eta iturri hori, modernitateak argiago erakutsi zienez, ezin da gizakia bera izan, gizakiaz beste dena baizik. Barandiaran eta Arizmendiarieta bereziak baldin baziren, gizabidea hedatzeko etengabeko hautuaz gain, gizabidea ernetzeko iturritik gertu bizi zirelako da. Eta iturri hori misterioa bera da, lehenik eta behin euren burua apaiztzat zuten Hirumen-Jainko legeaz ezagutu eta ezagutarazten zutena. Esandakoa ondo ulertzeko, Azurmendiren *El hombre cooperativo* sintesi euskaraz ekarri zuen *Lankidetza*. *Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua* talde laneko epilogoko Alfonso Gorroñogoiaren hitz hauek lagungarri izango zaizkigu:

Nondik zetorkion bere izaerari eta jardunbide pertsonal eta sozialari zerion barne-indar izugarria? Erantzun bakarra dago: fededun eta apaiz izaeratik. Arizmendiarietak Jaungoikoarengan zintzo sinesten zuen, anaitasunaren oinarri eta kosmosaren eta gizakiaren jatorri gisa. Jaungoikoaren borondatea gizakien arazoei itsatsitako apaiz gisa bideratu zuen. Beretzat, egin zuen guztia egin beharrekoa zen apaiza zelako, hain zuzen. Horregatik, ez da harritzekoa bere lankide batek esan izana Arizmendiarietaren ikasbiderik garrantzitsuena ondoko esaldiak laburbiltzen duela: “Jainkoa zerbitzeko modua gizaki zehatz eta erreala zerbitzea da”. Lankide horrek berak dio Arizmendiarietaren biografia, artikulua eta irudiak izenpetuko lituzkeela sarritan ezkutatu den eta bere burua ederki deskribatzen duen esaldia-ekin: “Jaungoikoari eman zitzaion gizona” (in Agirre *et al.*, 2000: 162).¹⁵

Azalpen horrek Barandiaranentzat ere balioko luke, zalantza izpirik gabe, eta, hein jakinean eta tentu handiagoz, Azurmendi eta haren belaunaldiko *Jakinkideentzat*. Guztiek argi zeukaten edota daukate demokrazia, duintasuna, heldutasuna, laguntasuna edota hurkoari eta egiari zorra erakutsi eta ongarritzen duten balioak ezin direla beste barik transmititu, haien sustraiak eta sakoneko urak ezagutu gabe. Hau da, zuhaitz handien parekoak dira balio horiek: ezin dira, beste barik, lekuren batetik erauzi eta beste inon landatu. Hala, erne ez ezik, bizitza bera galdu egiten dute. Zuhaitz handien pare diren balioak haiengana helduz baino ezin dira ezagutu. Haietaraino bidea, *gizabidea*, egin beharra dago, gizakiaren barne bidaia, banako eta komunitarioa, eskatzen duena. Herriaren lorpena iturritik abiatzea baldin bada, apaiz izatearen dohaina iturritik herrirako bitartekaritza egitea da.

15 Tellecheak ere berdin esan zuen Arizmendiarietatik: “Mas algunos (Urbano Gil, Goikoecheaundi, Oyarzábal) han apuntado que en tales exposiciones queda desdibujada, por no decir escamoteada, su figura o personalidad sacerdotal, esencial en el perfil concreto de su vida y de su acción. Tal condición no es algo periférico o sobreañadido a su estampa concreta, sino el alma y motor de sus pensamientos, de sus iniciativas y proyectos, de su vida ejemplar, de su talante integral. No puede prescindirse ni metodológicamente de ello, porque es la sustancia de su vida. Su historia viva es la de un sacerdote en Mondragón” (2005: 18). Ildo horretan, Gaminderen lan biografi-filosofikoa (2021) Molinarena (2005) baino hobea da.

Herri bat eta kate bereko begitzat har ditzakegun Barandiaran, Arizmendiarieta eta Azurmendik, hortaz, egun bizirik egoteko bidean galdu egin zaiguna berreskuratzeko beharra erakutsi digute.¹⁶ Herri auzi eta giza gaixoen aurreko osabidea gizabide behar duela esan digute. Heldulekuak, oinarriak, iturriak eman dizkigute, edo, horren orde, non dauden esan digute. Herrigintza asmo berekook ondo gogoan izan beharko genuke, hortaz, bai haien lanaren zentzu eta narratiba, bai gizabidearen argiaren iturri transzendentea, lan honetan erakutsi eta nabarmendu egin ditugunak. Transmisioa erabat eten eta betiko gal ez dadin.¹⁷ Izan ere, Arizmendiarietaren ondoko gogoetak galdetzen digunez:

Gizaldiz-gizaldi iraun du gure Herriak.

Aurrekoek utzi zigutenaz baliatzen gara.

Zer utzi behar diegu etortzeko direnei? (d.g.b: 3).

Erantzuna iturria da, gizabidea eratzeko iturria. Artzeren hitzetan: “Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik”. Atzoko edo aspaldiko ura edateak kaltea eragin lezake –ur geldoa ustela izan liteke–, baina atzoko edo aspaldiko iturritik edateak, ordea, on handia. Izan ere, gaur egun urik izan dezagun, antzinako iturria behar dugu. Arizmendiarietaren hitzetan, esandako guztia borobiltzeko: “Gizaki baten prestakuntza bera agertu baino ehun urte lehenago hasten da” (2013: 214).

6. BIBLIOGRAFIA

Academia Errante, La (1963): *Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran. Una jornada cultural en compañía del maestro*, Donostia, Auñamendi.

16 Esandako guztiaz gain, Barandiaranen hitz hauek gure baieztapena bermatzen digute: “Hay quienes desean conocer el alma vasca, lograr una representación de las constantes básicas de nuestra civilización, tener conciencia de su trayectoria multisecular y, lejos de traicionar a esta, facilitar su continuidad y colaborar en su desarrollo” (1977a: 26).

17 Azurmendiren hitzetan: “Guri Euskal Herrian gertatu zaiguna da heredatu dugun moralak, ‘hori ez duzu egingo’, eta mitologia erlijiosoa, mitologia klasikoa, dena puskatu zaigula. Dena. Eta orain ez dakigu errekuuperatzen. Erlijioaz hitz egiten denean... Mesedez, estudiatu ezazu problema lehenengo, eta gero, nahi duzuna esan. Baina lehenengo estudiatu. Hor elementu asko dago. Mitoa dago, erritua dago, errituala dago, eta sinbolismo handi bat dago, eta horren gainean egin den esperientzia historiko ikaragarri bat dago. Bi mila urtetan gure etxekoandreak beren haurra gaixo zegoenean edo hiltzen zenean beren buruari laguntzeko irudi mundu guzti horrekin bizi izan badira, ez ezazu bota errekar bi aldiz pentsatu gabe. Berrinterpretatu ezazu, edo bota ezazu, baina pentsatu eta gero” (2013).

- Agirre, Nerea *et al.* (2000): *Lankidetza. Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, Eskoriatza, Mondragon Unibertsitatea.
- Aizpurua, Jexux; Aizpurua, Jon (2009): *Joxe Migel Barandiaran (1889-1991)*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. <https://jentilbaratza.eus/wp-content/uploads/2019/02/barandiaran.pdf>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (d.g.a): “Dignidad de la persona humana”. *Arizmendiarieta funtsa*. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/F0204002.pdf>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (d.g.b): “Filosofía del sistema cooperativo”. *Arizmendiarieta funtsa*. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/10440326.pdf>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (1933): “Zerbait euskaldunetaz eta euskereataz”. *Arizmendiarieta funtsa*. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/00304047.pdf>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (1943): “El hombre no se salva, necesita que la salvación le venga de otro”. *Arizmendiarieta funtsa*. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFFondo/F0123043.pdf>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (2008): *On Jose Mariaren euskal idatziak*, Archivo Don José María Arizmendiarieta. <https://www.yumpu.com/id/document/read/13796889/tomo-vii-on-jose-mariaren-euskal-idatziak/17>
- Arizmendiarieta, Jose Maria (2013): *Gogoetak*, J. Azurmendi (arg.), Arrasate, Azatza. <https://arizmendiarieta.org/wp-content/uploads/2017/10/Gogoetak-JMArizmendiarieta.pdf>
- Azurmendi, Joxe (1984): *Filosofía personalista y cooperación*, Bilbo, EHU. <https://www.jakin.eus/show/586c3c0cdd9d3d4b0b99416aa1b0f06d297cf567>
- Azurmendi, Joxe (1992): *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*, Arrasate, Azatza. <https://arizmendiarieta.org/wp-content/uploads/2017/09/elhombre.pdf> eta <https://www.jakin.eus/show/8064a3ff78f3765fd772a0dfd-8ff13ed995dc71>
- Azurmendi, Joxe (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar. <https://www.jakin.eus/show/d250a2b4aaf36c3652040f580c3a12f5977b5305>
- Azurmendi, Joxe (2013): “Joxe Azurmendirekin solasaldia”, L. Agirre (elk.), *Jakin*. <https://www.jakin.eus/memoria/solasaldiak/joxe-azurmendi/8>
- Azurmendi, Joxe (2014): “El pensamiento de Arizmendiarieta en su contexto”, *Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea*. <https://arizmendiarieta.org/es/noticias/2014/05/ponencia-de-joxe-azurmendi-en-la-asamblea-general/>

- Azurmendi, Joxe (2016): “El pensamiento de Arizmendiarieta en su contexto. En el centenario de su nacimiento”. *RIEV* 61(1), 161-71. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/riev/61/RIEV%2061_1_161-171.pdf
- Barandiaran, Joxe Migel. 1974. “Barandiaran”, in *Hablando con los vascos*, M. Ugalde (eg.), 7-33, Bartzelona, Ariel. <https://www.jakin.eus/show/751bfaaee7e-539b316afe365ddaaefef6883b3b9>
- Barandiaran, Joxe Migel (1977a): “Humanismo vasco (aspectos)”, in HH.EE., *Cultura vasca (II)*, 17-26, Donostia, Erein.
- Barandiaran, Joxe Migel (1977b): “El euskera como elemento de una etnia y expresión de una cultura”, in *El libro blanco del euskera*, 304-15, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Barandiaran, Joxe Migel (1980): “¿Qué es ser vasco?”, *Muga* 10, 14-19.
- Barandiaran, Joxe Migel (1981): “Sobre las raíces humanísticas de mis estudios vascos”, in *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco. Homenaje a J.M. de Barandiarán y a M. de Lecuona*, 343-52, Gasteiz, Teología Fakultatea.
- Barandiaran, Joxe Migel (1983): *Obras Completas (XXI)*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, Joxe Migel; Manterola, Ander (zuz.) (1988): *Euskaldunak. Euskal etnia (IV)*, Donostia, Etor.
- Barandiaran, Luis (1980): *Barandiaran'dar Jose Migel. Euskal-kulturaren aitalen*, J. Lekuona (itz.), Gasteiz, Kardaberaz Bazkuna. <https://euskera zaintza.org/PDF/Kardaberaz/Bilduma/BARANDIARAN'dar%20Jose%20Migel.pdf>
- Barandiaran Fundazioa (2017): *Europa, Barandiaran eta baloreak. Jose Miguel Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrena*, Z. Velez de Mendizabal (koord.), Gasteiz, Arabako Foru Aldundia. https://www.barandiaranfundazioa.eus/images/Europa_Barandiaran_baloreak_/Europa_Barandiaran_eta_Baloreak.pdf
- Eizagirre, Andoni (2020): “Pertsona burujabea Arizmendiarietaren asmoan eta egi-tean”, *Jakin* 237-38, 193-206. <https://www.jakin.eus/show/d679b02a01a4de-8d8ba24019a17a41cf18904058>
- Gaminde, Eba (2021): “Arizmendiarietaren pentsamendua eta ekinbide herrigilea: ideietatik ekintzetara”, in A. Eizagirre eta I. Muñoa (koord.), *Burujabetzaren bidetik*, 155-83, Lasarte-Oria, Oreki.
- Mentxakatorre, Jon (2020): “Mirande eta Gandiaga, sinesmen eredu bi”, *Jakin*. <https://www.jakin.eus/show/4e8ffa8b8c1b5246c1f3d9a9ed27cdf586c1e1e>

- Mentxakatorre, Jon (2021): “Mirande eta Gandiaga, sinesmen eredu bi”, in X. Eizagirre eta I. Zabaleta (arg.), *Pentsamendu bat gure munduari. Joxe Azurmendi Kongresua*, 211-20, Bilbo, EHU-Jakin. <https://www.jakin.eus/show/4e8ffa8b8c1b5246c1f3d9a9ed27cdf586c1e1e>
- Molina, Fernando (2005): *José María Arizmendiarrjeta (1915-1976)*, Arrasate, Caja Laboral. <https://arizmendiarrjeta.org/wp-content/uploads/2017/09/bio.pdf>
- Tellechea, Jose Ignacio (2005): *El otro Dn. José María*, Iruñea, Castuera. <https://arizmendiarrjeta.org/wp-content/uploads/2017/09/elotro.pdf>